Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3684

AGINDUA, 2010eko maiatzaren 17koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Hernaniko (Gipuzkoa) «Fundación Eduardo Chillida y Pilar Belzunce» fundazioaren estatutuetako 3. eta 15. artikuluetan egindako aldaketa onartu eta inskribatzeko dena.

Ikusita eta aztertuta geratu da «Fundación Eduardo Chillida y Pilar Belzunce» fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzeari buruzko espedientea.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2010eko martxoaren 24an, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Erregistroan sarrera eman zitzaien erabaki batzuk publiko egiteko eskritura publiko baten kopia baimenduari eta fotokopiari. Eskritura 2010eko martxoaren 3an eman zuen Pilar Belzunce de Carlos andreak, Donostiako notario Diego María Granados Asensio aurrean zela (protokolozenbakia: 586).

Bigarrena.– Eskritura publikoan, 2010eko otsailaren 25ean Hernanin Pilar Belzunce de Carlos patroi bakarrak emandako ziurtagiria dago. Pilar Belzunce de Carlos fundatzailea bizi arteko fundatzailea da, eta Patronatuko lehendakari eta idazkari lanetan jardun du. Ziurtagiri hori 2010eko otsailaren 25eko bilkuraren aktarena zen. Bilkura hartan erabaki zen, besteak beste, Fundazioaren Estatutuetako 3. eta 15. artikuluak aldatzea, fundazioaren helburuei eta patronatuko idazkariari buruzkoak hurrenez hurren.

Ziurtagirian, Fundazioaren Estatutuetako 3. eta 15. artikuluen idazkera berria jasota dago, bai eta fundazioaren helburua errespetatu egiten dela, bizirik dagoen fundatzailearen aldetik inolako debekurik ez dagoela eta ez duela inolako eraginik fundazioaren bideragarritasun ekonomikoan.

Hirugarrena.– Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistro, Aholkularitza eta Kontrol Unitateko Zerbitzu Teknikoek aztertu dute eta, ondoren, ebazpen-proposamena egin dute.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio fundazioaren estatutuen aldaketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

3684

ORDEN de 17 de mayo de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se aprueba e inscribe la modificación de los artículos 3 y 15 de los estatutos de la «Fundación Eduardo Chillida y Pilar Belzunce» de Hernani (Gipuzkoa).

Visto y examinado el expediente en el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la modificación de los Estatutos de la «Fundación Eduardo Chillida y Pilar Belzunce».

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– Con fecha 24 de marzo de 2010 ha tenido entrada en el Registro del Departamento de Justicia y Administración Pública, copia autorizada y fotocopia de la Escritura Pública de elevación a público de acuerdos, otorgada el 3 de marzo de 2010 por doña Pilar Belzunce de Carlos ante el Notario de Donostia-San Sebastián, don Diego María Granados Asensio (número 586 de su protocolo).

Segundo.– La referenciada Escritura Pública incorpora Certificación expedida en Hernani (Gipuzkoa) el 25 de febrero de 2010, por doña Pilar Belzunce de Carlos, Patrona única, Fundadora vitalicia, actuando en calidad de Presidenta y Secretaria del Patronato, del acta de la reunión celebrada el 25 de febrero de 2010, en la que se acuerda, entre otros la modificación de los artículos 3 y 15 de los Estatutos de la Fundación, relativos a los fines fundacionales y el referente al Secretario del Patronato.

En la propia Certificación se recoge la nueva redacción íntegra de los artículos 3 y 15 de los Estatutos Fundacionales, así como que se respeta el fin fundacional, que no existe prohibición de la fundadora supérstite y no tiene ninguna incidencia sobre la viabilidad económica de la Fundación.

Tercero.– El expediente ha sido examinado por los Servicios Técnicos de la Unidad de Registro, Asesoramiento y Control de Fundaciones del País Vasco que, a su vista, han elevado Propuesta de Resolución.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de modifica-

ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legeko 40. artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan; eta, Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) artikuluan.

Bigarrena.– Estatutuen aldaketa onartzeko eta aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko espedienteari funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan eskatutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduaren 44. artikuluan eskatutakoak. Azken erregelamendu hori ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren bidez onartu zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 31. artikuluan ezarritako araudian jasotakoa betez, estatutuen aldaketak ez baditu Fundazioaren helburuak aldatzen, eta fundatzaileak ez badu beren-beregi debekurik jartzen, Fundazioaren helburuei eutsi egiten zaiela ulertuko da, Babeslaritzaren Aholkularitza Batzorde Teknikoak 2009ko irailaren 10eko bileran ezarritako ezarritako irizpide berrien arabera, eta ez da beharrezkoa izango Babeslaritzaren aldez aurretiko onarpena, aipatutako artikuluko 4. zenbakian adierazitakoa hain zuzen ere. Hori horrela da ezen, uste baita, debekurik ez egotea segurtasun eta argitasun juridikoko arrazoiengatik baino ezin dela ezarri fundazioaren negozioa gauzatzerakoan.

Aipatu artikuluak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusi dira.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak

EBATZI DU:

Lehenengoa.– «Fundación Eduardo Chillida y Pilar Belzunce» delakoaren estatutuen 3. eta 15. artikuluetan egindako aldaketak onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutuen aldaketa inskribatzeko agintzea, agindu honen datarekin, eta 2010eko otsailaren 25ean Fundazioko Patronatuak egindako bileran hartutako erabakiak publiko egiteko emandako eskritura publikoan ezarritakoarekin bat etorriz. Eskritura publiko hori beste eskritura publiko batek zuzendu zuen; hain zuzen ere, Bilbon, 2010eko martxoaren 3an Donostiako notario Diego María Granados Asensio jaunak emandakoak (protokolozenbakia: 586).

ción estatutaria, en virtud del artículos 40 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, el artículo 3 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco y el artículo 9.1.e) del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Segundo.– Al presente expediente de aprobación de modificación estatutaria y ulterior inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como en el artículo 44 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Respecto del cumplimiento de la previsión normativa establecida en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, cabe indicar que salvo que la modificación estatutaria implique la modificación de los fines de la Fundación y siempre que no conste prohibición expresa al respecto por parte del Fundador, de acuerdo con los nuevos criterios establecidos por la Comisión Técnica Asesora del Protectorado en la reunión de 10 de septiembre de 2009, se presumirá que se respeta el fin fundacional, no siendo necesaria la aprobación previa del Protectorado a que se refiere el n.º 4 del citado artículo. Todo ello porque se entiende que la no existencia de prohibición en principio solo puede establecerse, por razones de seguridad y claridad jurídica, en la formalización del negocio fundacional.

Vistos los preceptos citados y demás normas de general aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública

RESUELVE:

Primero.– Aprobar la modificación de los artículos 3 y 15 de los Estatutos de la «Fundación Eduardo Chillida y Pilar Belzunce».

Segundo.– Ordenar la inscripción de dicha modificación estatutaria de la Fundación, con la fecha de la presente Orden, de acuerdo con lo establecido en la Escritura Pública de elevación a público de los acuerdos del Patronato de la Fundación, de la reunión celebrada el día 25 de febrero de 2010, Escritura autorizada por el Notario de Donostia-San Sebastián, don Diego María Granados Asensio, el día 3 de marzo de 2010, bajo el número de 586 de su protocolo.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 17a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de mayo de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.